

Marrubi goiztiarrak

- Aspaldi-aspaldian, gizon bat eta emakume bat baino ez ziren bizi munduan. Oso zoriontsuak ziren. Bildutako fruituekin eta ehizan edo arrantzan harrapatutako animaliekin elikatzen ziren. Egun batean gizona ehizara joan zen. Ehizatik itzultzerako andreak janaria prest edukiko zuela espero zuen, baina itzuli zenean, janaria prestatzen aurkitu ordez, loreak biltzen ikusi zuen. Gizona oso haserre jarri zen, goseak amorratzen baitzegoen.
- 5 - Ez duzu nahiko loreak jatea ezta ? - esan zion andreari
- Eta, orduan emakumea ere oso haserre jarri zen bere burua eta bere soinekoa apaintzeko eta gizonak ederrets zezan bildu zituelako loreak.
- 10 - Janaria loreak bildu ondoren prestatzeko asmoa nuen, baina orain, hain minduta nago zure jarrera horrekin, ez baitizut ezer prestatuko. Eta ez naiz zurekin gehiago biziko ere. Eta andrea Eguzki aldera ibiltzen hasi zen. Gizona atzetik joan zitzaion, baina emakumeak hain oinkada handiak ematen zituen, hain lasterka ibiltzen zen, ez baitzuen hura harrapatzeko modurik.
- 15 Baso, zelai, muino eta erreketan zehar joan zen ... Eguzki aldera beti. Gizona ere Eguzkiari begira zihoan, laguntza eskatu nahiko balio bezala. Eta orduan, Eguzkiak hitz egin zion :
- Hire andrearekin haserre al hago oraindik ?
- Ez ! - erantzun zuen gizonak -. Ongi damutu zait hitz egin diodan bezala hitz egin izana. Barkamena eskatu nahi diot, maite eta errespetatzen dudala esan; baina hain doa azkar, ezin dut harrapatu.
- 20 - Horrela bada, lagunduko haut - esan zion Eguzkiak.
- Eta orduan Eguzkiak distira eta indar handiagoz begiratu zuen Lurrera, eta bere izpiak emakumea pasa behar zuen lekura bidali zituen. Eta bere izpien indarrez lehenengo mugurdiak hazarazi zituen. Magurdi heldu berria ziren, zapora handikoak eta urtsuak; baina emakumeak aurrera jarraitu zuen fruitu ezin gozoago haiei jaramonik egin gabe.
- 25 Eguzkiak orduan beste ahalegin bat egin zuen. Indarrez distiratu eta ahabia pila bat hazarazi zituen. Emakumeak ibiltzen jarraitu zuen; Kasurik egin gabe; Haren eta gizonaren arteko aldea gero eta handiagoa zen.
- Eguzkia hirugarren aldiz saiatu zen. Haren izpiek belarra argitu zuten lekuan masusta beltz gozo-gozoak hazi ziren; baina emakumea hain zegoen haserre, ez baitzen ohartzen bide bazterreko gauzez.
- 30 - Hala eta guztiz ere, Eguzkiak ez zuen amore eman. Berriz ere bere izpiez argitu zuen emakumea pasa behar zuen lekua, eta marrubiak agertu ziren orduan. Eta emakumeak gelditu egin behar izan zuen haiek ondoan ikustean. Makurtu eta, poliki-poliki, bat hartu eta ahora eraman zuen. Inoiz dastatutako gauzarik gozoena iruditzen zitzaion, eta gozotasunak gogora ekarri zizkion gizonarekin haserretu baino lehen bizi izandako egun zoriontsuak.
- 35 - Fruitu hauek hartu behar ditinat nire gizonarentzat - esan zuen bere kolkorako. Eta marrubiak biltzen hasi zen.
- Gizona ondora heldu zitzaionean, marrubiak biltzen ari zen oraindik.
- Barkatu lehen esandakoak - esan zion gizonak.
- 40 Eta andrea, erantzun gisa, marrubi gozo haletako bat eskaini zion.
- Oraindik ere, txeroki herriko gizon eta emakumeek, marrubiak jaten dituztenean, hurkoa maitatu beharraz hitz egiten dute, bai baitakite besteenganako adiskidetasuna eta begirunea - marrubien zaporea bezain gozoak direla.

Dadahwat, Ipar Amerikako kondairak, Elkar Donostia 2003

COMMENTAIRE GUIDÉ

Idazki honen azterketa eginen duzu ondoko gogoeta ardatz hauen inguruan.

1. Ipuian agertzen diren pertsonaiak, haien izaerak eta haien arteko harremanak.
2. Genero bakoitzari dagozkion lanak edota eginbeharrak
3. Ipuiaren helburuak, honenak eta denenak (euskal kulturan eta besteetan).

ITZULPENA

« Hala... » 31. eta 43 « ...gozoak direla. » lerroen arteko zatia frantseserat itzuliko duzu.